

HERRIAK ETA GIZONAK

EUROPA'REN ETORKIZUNAREN IKUSPIDEA IZKUNTZEN ALDE BEGIRATUZ

Aurretiko zenbakian azaldu nituan Europaren alkartzeari buruzko zenbait problema, eta etorkizuneko Europa orretan izkuntzen auzia da, politikoki eta ekonomiku azkiekin batean, zer ikusi aundia duana. Izkuntzeri buruzko arloak dituan korapilloak ere erabagi bearezkoak dira Europaren alkartasunerako. Ez da auzi gaitza, borondate onez dana lortzen delako gizonen artean. Baiña, ori; borondate onezi Ori gabe ez dago ezer egitearik giza-jendarearen artean. Oritarako, nere ueste, asierako «paneuropa»-ren ideoa zaar-rari eutsi bearko zaio, aberri bakoitzak bere izkuntza eta beste bat ofizialki Europa erresuma orokorrerako. Au da, bakoitzak berea ta orrez gaitza bat guzientzat. Guzientzako bat ori, ondo izango litzake Esperantoa. Baiña teori orren nekeak dafoz izkuntza txikiak bakarrak aritzen dutelako ontzaf. Zergaitik, aunditasunen indartsu diran izkuntzak eta zientzietan eta teknikan indartsu diranak despezitazen dute Esperantoa, menperatzen dituzte txikiak eta menperatu nai dute ailar.

Etorkizuneari errez igarri ditazke, naiko segurantzirekin, izkuntzen biologikazko lege zaara naukituko dala: au da: besteak menderatu ta irenfti zientzia ta teknikalzko kulturari nauki diranak. Alemana, inglesa (USA-ren laguntzarekin) eta rusoa nauitzen joango dira. Fisikalzko teorema berriak eta filosofikalzko aburu berriak sortzen dituztenak joango dira goruntza eta gainerakoak beruntza.

Argi nabaitzen da latineralzko izkuntzen gaibera, sajonarren goratzearekin, Gertabide berezia da zibilizazioen kondairan, etorkizuneko kulturaren buru diran izkuntzak besteak gain jaratea.

Izan ditazke gora-berak, gerragaitik, ekonomigaitik, jakintzaren babesean sortu ditzeaten aurragapeneko asmakortzen gaitik eta abar. Baiña, Europar, altura onetan, nekez gertatu ditazke bide oien suretia aldatuko duen ezer.

Izkuntzak kulturaren aldetik dituzten balioak salbatuko badira, ta luzarora arrisku berean daude orain menperatzeille diran frantsesa eta gaztelera ere (menderatzen arrangurak uxatzeaz bat, inolaz lagunduko ez dualako Europaren alkartasun bearrari umilduen pozik-ekaz), denborari jarri bear litzake UNESCO-ak eskeinirikako asma, *Jaiotzikerak erabiltzea ikastoletan* (1954-an argitaratua). Bear bada aurragapen aundi bat izango litzake Europako izkuntzen salbaziorako ta izkuntzeri buruzko auziak erabagitzeko.

Gerorako ikuskizuna ain ageri da aldakorra, gauza oiean adierazi besterik ezin genezake egin, etorkizuna nora dijoan ere igarri ezinik, mente onen era beti berri ta beti aldakorrean.

Kondairan, Frantzia agiri zaigu estadurik zentralistee-na, baiña azken aldi onetan aldatzen ari da bere jokabidea, 1951-garren artean jarri zuan Deixonene legea, eskoletan jaiotz-izkuntza erakustea uzten duana. Baiña, eragozpen asko izan ditu maixu ta maistrak erresumetako izkuntzak ez zekitelako. Beraz, Frantsiako gobernuak zerbaite egin bearraren kezka erakutsi badu ere, Deixonene legea erdi uestean gelditu da. Orain, A. Chamson (Frantses Akademiako) «Conseil National de défense des Langues et Cultures Régionales»-aren presidentea ari da irugarren izkuntza bezela batxilerrari sartu nairik bost izkuntza: occitana, euskera, bretona, corsesa eta catalana. Bakoitzaren kultura eta literatura asinaturatuz jarriaz. Azken elekzioak aurretik, agoz, zenbait eskintza gelditu ere bai, baiña elekzio ondorean itzak litz uestean gelditu zaizkiz. Itz-ustea, gezur-ustea. Baiinak zerbaite egin bearra du, geroa illunagoa arkitu nai ez bada.

Frantsiaki ere bere barnean badu arrangurarik aski. Problema geroago ta biziago du. Izan ere, auzi zarra, auzi txarra. Ikusi besterik ez dago joan zan udaran Micheli Legris-ek «Le Monde»-n *Les parties maternelles en France* izenburuz argitaratu zituan arrikuluak. Orainzku, berriz, Paul Séranek argitaratu du liburu bat *La France des minorités* izeneko, estalduta zeuden zauriak azalduz, bertan mintzo da Flamanak, Bretoiinak, Euskaldunak, Otzitanoak, Korzak, Alzazianoak eta Lorennak dituzten proletari buruz. Beraz, auzi oien aurtean ez du lo arterrik. Zalantza gabe, Europaren etorkizuneari zer ikusi aundia dute adierazpen oiek. Eta izango al dira Europarren alkartasunerako, erri txiki ta aundi, guziak aintzat arturik.

Suizak aspaldi danik aukeratu zuan politika era ori, ta Europar ez da beste estadu bat bere bezela milla uestean bere barnean pakea izan duanik. Ta, ez gaitera sasi-pakea. Izan ere, Suizaz zear ibilli mintzeanean konturatu bai nintzean emen utopiatzat jotzen dan politika, ain egizko biritza moidea dala. Alemania eta Errusiarentzat ere ez da gauza berria federaziozko estadua. Ta Suiza bezin ongi antolatua ez badute ere, beren kezkaq ortaratu dirala ez dago dudarik. Gerrate ondoreneko Hallak ere Jokera ori daroa. Beste alde batetik, batez ere Europak berak (Europako auzia bakarrak ez bada ere) agiri biziain dituan prolemak aintzat arturik mintza zan Joanes XXIII-garren *Pacem in Terris* minorien alderako errespeta eskatzen zueanean. Osei-garren mendeko gizon kontzentziak orrela eskatzen bai du gizonak gizonarentzat eta erriak errietentzat errespeta ta laguntza.

Estadu federatuzko uzten bai dute, beren biritza baruan, erri txikien izakera ta izkuntza, bizi ez-ezik, indartzea ta obetza guzien onerako. Ta era orrek darama estadu baten barneko erri desberdiniak alkarganako maitasunez ta laguntza jaritzeko bidea. Alkartasunez lotzera eta ez derrigorrezko indarrez lotzera. Gaurko kontzentziaren errozia ez bai dago txiki izatean edo aundi izatean (animalien artean edo animaliak bezela portatzen diran gizonen artean izan ezirik).

ETA BEN BARKA, ZER?

Asteak igaro dira ta oraindik ez dut gure aldezkarlan Ben Barka-ren isenik irakurri. Gaitera zer esan genezake guk besteak esan ez dutenik? Nik esaten dutenak beintzat ez du asko balioz, guzia ezagonea, ez-negiba, eahizana, ezin, ezinaren oiua dalaio. Nere oiua nere kontzentzia lasaltzeko bakarra izango da, benetan niherabilia. Baina zer egin neazake geiago?

Ber Barka arrapatu dutela ta guri zer? Kalean ibilli naiz eta jendea beti bezela. Eskola joan naiz eta guziok konten. Lana egindut etan... Bakarrak gelditu naiz eta ni triste. Zergaitik? Kalera atera banizt eta oiuka ast: ezin dut, ezin dugu, ezin da... txorotzat artuko nintzen, baliteke gaitera txorotatua egotea.

Nork arrapatu du Ben Barka, nortzuk arrapatu dute Ben Barka? Ez gizon batzuk, gizon askok, millioika gizonak. Sistima batek arrapatu du Ben Barka. Ben Barka askok erori behar dute horandik atzapar heriotean. Bere ibilaldi eta lanak miñ ematen ziguten nuanbait. Izan ere bera peligru bat zan. Bere ideiak okerrak ziran.

Habasa'n, irugarren munduko herriak egindako bilberan oerleku bat zegoen uesta. Ben Barka zea biltzar horren zuzendari.

Polizi gizarajo batzuen gait geldituko da guzia. Ge-yen geyena inihistru baten gain. Guziok lasaltuko gera-arnasa hartuko dugu. Baina azpi azpitik ari hotek mugitu dituzten indarrak ez dira beiaere agertuko. Eain dira agertu gaitera. Ari horren azkeneko puntuan gu, gure herriak arkituko bailira.

Horain bai ez nuzela arritzen gure aldezkarlan Ben Barka-ren izena ez agertzea, gu danok alai egotea, gure jakintsuak gaitera alaitzketatzat ez artea, gure "gizonak" lasai egotea, Ben Barka peligrusua zalako, Ben Barka'k pakea ta demokrazia zalantzan jartzen zitu-lako.

Trolebusean etzera heldu nitzan. Nere ondoan Argeliko mariel gazte bat zetoarren. Pasal Ansho'n jetxi zan. Mozkorra zegon. Bere Argeliko pasaportia erakutziaz muxu ematen zion. Ben Bella, Ben Bella, eta arabez litz batzuk esaten zion. Ni pentsatzen gelditu nitzen.

Herriak eta gizonak. Ez herri eta ez gizon. Miñez gaude ta ez gera konturazten ibiltzako zorian. Gizon baten erioztak, gizon baten arrapatzeak ez digu ezertxo ere esaten. Marruekos'koa zan. Paris'en gertatu da.

Ba dakit nere lautzokak ez duals gorputsik, ez duela ezer esaten. Triste nago ta ustelak dauden herri ta gizonak alal. Nik ere beglak itxia alaitu egin nahi dut. Baina Ben Barka guk ere arrapatu dugu.

JOXE MANUEL TOLEDO

Gobernuak zalantzan

Lerro auk idazten ari naizen garaian bi dira gobernuak Europa'ren barruan zalantzan daudenak: Italia'koa eta Belgika'koa. Lerro auk argitaratzen diranean ez dezaket asmatu zertan egongo diran bi gobernu oien krisisak eta zalantzak. Ez bada nere eginkizuna profetarena egitea, gertaearak komentatzea baizik. Nere iritzia ematea.

Ba zuten alde batetik naioko zai bi gobernu oiek. Gaurko politikaren terminologian «erdi ezkerreko» gobernu ziran. Batez ere kristau demokratik, naiz eta auk Belgika'n sozial-kristauen izena izan, eta sozialistak, sozialista deformistak jakiña, osatuak ziran biak.

Dogma bat bezela izatera irixi da gaur eguneko politikariaren artean Europa'ko erri aurterutuean zear ezker-tiar den gobernu batentzako ez dagoela benetako posibilidaderik, ori utopia dela. Ori ez da oso osoan egin. Alde batetik, eta ori ondoen Italia'n ikusi da, sozialistak, ezker-tiar diran sozialistak zentristak osatutako gobernu batean sartzen baldin badira sozialistak oso osorik kristau demokraten mendean gelditzen dira. Erdi ezkerreko gobernu osazteko egin zuten programatik Italia'ko gobernuak ez du gitea ezertxo ere egin. Geiena argi indarra nazionalizatzea, baiña ezkerreko eskuarekin kapitalistei argi-in-

darraren jabetasuna kendu baldi diete eskubikoarekin kapitalista lan-tegi audienan kontzentrazioak lagundu ditu.

Ala era aitortzen dut gaur egunean ez dagoela kasikan, une motz xamar batean beinepein, ezkerria us uestean gobernu irixteko modurik, Baiña ori ez da gaurko zirkunstantzietan eta erri industrializatuetan gobernuak nai ta nai ez erdiokak izan behar dutelako. Ez. Ori ez da gaurko gizariek ezkerriaren beharrik ez duetako, ezkerria gaurko dagoelako baizik, ezker berria oraindian ez delako indartu. Baten batak irripar malizios batekin galdegin le-zake: «eta zergait dago gaurko ezkerria? zergaitik ez da indartu ezker berria? Gaurko zirkunstantziaren ondorena delako». Bai ta ez. Baiña ezereko gelago bajezko baiño.

Eskubiak ez du berri-tu beharriaren aii premi aundirik. Ezkerak berriz bai. Eskubiak gaurko, gaur ezarria da-goena. Moumier'ek zion ezarritako desordena, defenditzea aski du, geienean zerbaite ikuitu, zerbaite aldatu. Ezkerrek ordea gizartea eraberritu nai du, gaurkoaren lekuan berri bat jaso nai du. Ta, jakiña, zalagoa da bide berriak arkitzea lehengo segitzea baiño.

Gaurko gizariek dakartzin aldaketan aurreran zenbait ezker-tiarrik etsi egin dute ta bere ahal-uziña izakutatu naiean retorika ta demagogi itzu batean babestu dira, klau-dikazioan ez bada.

RIKARDO ARREGI

Arazu baten ondorioak

Azkenengo illabete hauetan, makiña bat paper zikindu da Marruekosko arazoei buruz. Arjehiakin izan zun muga-itxiltua ezkerre, ez zitzaizun lurralde haietatik zarata handirik irixten. Arza, ordea, ba-rruan egon, ta pipiki zura jaten duanean, zurak "krak" egiten du. Marruekosan ere, Ben Barkaren arazoa dela bide, sasi-pakeak bere soineko ederra erantzi digu. "Zerbaite" ba dela konturatu gera, ta konturatze hortan ueste baiño trapu zahar gehiago atera dire arkitu.

Ben Barkaren arazoa ez dut azalduko, luze-hegia bailitzake; gaitera, gehienok egunerokoen bidez, izango dezute prolema nahasi horren berri. Baiña, nik irakurririkato egunerokoko, arazoaren berri eman arren, ez dute Marruekosko giroa azaltzen. Ta, behar bada, Marruekosan nabaitutako ondorioak inter-resgarriak izanzen zaituzte.

Europar, bere onerako, erriak eta gizonak geroago ta alkartasunagoan bizi bearra dute. Adierazi degun bezela (ikusi aurretiko Z. ARGIA-an lan onen asiera), bere ekonomiak eskatzen du orrela. Ta, ekonomiak esaten degun-ean, bizi moideak esan nai du. Guziari dagokiona da. Eta une larru onetan erraziozko salbazio bakarra da orrela jo-katu bearra. Europa alkartu bat gizonak eta erriak beren jatorrizko etnia baloreak ontzat arturik, bakoitzaren sentipen eta pentsaearak errespetatuz eta errespetatu eraginaz. Ori bai da bere erraziozko izaera. Guziok gera Europa, eta noreperkeriak alde batera utzia, bakoitzak berari dagokion lekutik eta girotik, denok landu ber degu goratzea, gu-ziok analki bilduko gaituan Europa lortzeko.

J. SAN MARTIN

Ben Barkaren arazoan parte handia izan duen bat Oufkir jeneralia dugu. Hassan erregearen ministrua da. Ezker-tiarrik, arazoaren hasieran poz han-dia artu zuten, oraingoan erregeak botako zula ueste baizuten. Baña, tamalez, ez dute izan atsegin luzerik. Izan ere, Frantziako reakzioak ez du gehiagi kezkatu jeneral boteretsu hau. Oraindik, sendo tinko ageri da. Marruekosko jaun da, jabea da, ta berak badaki mork ez diola aginterik kenduko.

Jakiña, era hortoko aginteak, zenbait ari-xku ba-ditu; esate baterako, ez da denpora asko, ikasleak "naioko eliza ditugu, eskolak!" esanaz, kalera utera zirela.

Nekazaritzako ministruak, Ahardane jaunak, ar-tu eman onak ditu Oufkirekin. Gaur egunean Ahar-dane, nekazarien partiduko buru dugu. Bere asma, ordea, Marruekosko partidu bakurra izatera irixtea da. Artarako, noski, Oufkir jaunaren baimeina du. Orrela diktadura baten bidean jarriko lirake: parti-du bakar batean, ejerzitioan eta poliziagan onarrutu-tako diktadura batean.

Estaduko diruaren erdia Ejerzitoak eta poliziek jaten dute. Ez da arritzekoa herria gosete lutezan baldin ba dago. Illean bosteun pezeta irabazten du-tenak % 50 dira. Urtean, berriz, iru milioik 12.000 pezetatik goru ez dute jasotzen. Militarrek, lehene-tan daude, ta aurren, berain alde diren laguntzak gu-tzitzeko alegin batzuk erabat hurreratu dituzte.

Hassan II'garrenak, dirudienez, ez du nai milita-rran kontra juterik. Bestealde, jeneralen eragin bor-titzak herriagan egon-ezina sortarazten du. Hassan bere erregetza iraurazten saiatzen da, ez dut ueste, ordea, luzaroan izango denik.

J. ELORTZA